



SEGURAKO UDALA



## 50. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETAKO LOGO LEHIAKETAREN EMAITZAK:

Aurten Euskal Herriko Dantza Txapelketak 50 urte beteko ditu. Urteurrenaren bueltan egitasmo ezberdinak antolatzen ari gara, hauetako bat, kartel lehiaketa egitearena izan da, lanak aurkezteko epea, 2026ko martxoaren 31tik maiatzaren 5era izan delarik.

Guztira 10 lagunek parte hartu dute eta 16 kartel aritu dira lehian.

Epaimahaikideek baloratu beharreko irizpideak izan dira:

- Aurkeztutako lanaren kalitatea.
- Esanahia: 50.EHDT kartela aurkezteko eta irudikatzeko gaitasuna.
- Sormena proposamenaren garapenean.

Epailleek lanak aztertzerakoan, testua, tipologia, ideiak, proportzioak, emozioak, mugimendua, koloreak, transmisioa, sormena, kalitatea, espazioa, sentimendua, urteurrenaren balioa eta abar luze bat kontuan hartu dituzte.

Horrela bada, lan guztiak aztertu ondoren eta aurretik aipaturiko irizpideak kontuan hartuta, aho-batez erabaki dute kartelik ez aukeratzea irabazle gisa.

Oinarrietan aipatu bezalaxe, parte hartzaileek 20 euroko saria jasoko dute Segurako dendetan kontsumitzeko (**maiatzaren 18tik ekainaren 18ra bitartean**).

Bale hauek Segurako Udaletxeko harreran jaso beharko dira (astelehenetik ostiralera, 08:30-14:30 eta asteazkenetan baita ere 15:30-18:00).

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei,

Seguran, 2026ko maiatzaren 18an.

**SEGURAKO UDALA – KULTURA SAILA**